



URDAZUBI - URDAX

50

**ans de
PEINTURE
AU PAYS
BASQUE**

**EXPOSITION D'ART / ARTE ERAKUSKETA
DANS LE CLOÎTRE
DU MONASTÈRE D'URDAX**

à 3 mn de Dantxarinea (Navarre)

Ouvert toute l'année
En saison tous les jours de 11H à 20H

Tél: 0034 948 59 90 31 / otxondo-urdax.com
Organisation: Otxondo événements

APEZETXEA
ARANOA
BRAVARD
ETXEBARRIA
ETCHEVERS
ORTIZ DE ELGEA
IRKUS
MENDIZABAL
PIER
ZUMETA



Urdax-Urdazubi
Dantxarinea



EUSKAL PINTURA 50 URTEZ

Gaur egungo euskal margolari garrantzitsuenen 300 artelan baino gehiago erakusten dira. Erakusketaren nortasuna aldi baterakoa izan arren -artista bakoitzaren lanak proposamen berrien aldaerara berritzen bait dira- helburua erakusketa iraunkorra izatea nahi du, artelanak bait dira aldatzen direnak eta ez artistak.

Margolariei dagokienez, XX. Mende erditik gure egunetara

Euskal Pinturaren hamar artista nabarmenenak hautatu dira. Horrela, Jose Luis Zumetaren ondoan Christine Etchevers, Gonzalo Etxebarria, Patxi Aranoa, Pier, Jose Mari Apezetxea, Roger Bravard, Aitor Mendizabal, Irkus Robles, Carmelo eta Ortiz De Elgea aukituko ditugu.

Eskultoreen artean Aitor Mendizabal, Thomas Fischer, Tista, Iñaki Ruiz de Eguino, François Marty, Ramon Ruiz Cabestany, Juan Gorriti, Iñaki Olazabal, Edouard Solorzano, Joseba Estarta, Koldobika Jauregi, eta Eduardo Iturrালের lanak aurki ditzazkegu.

Tel. (0034) 948 59 90 31

otxondo@gmail.com <http://www.otxondo-urdax.com>

Otxondo événements Calle San Salvador, s/n 31711 Urdazubi/Urdax NAVARRA

GPS 43.26612 / -1.50368



Jose Mari APEZETXEA

Apezetxea Erratzun jaio zen 1927an. 50. hamarkadako hasiera arte bere margolaritzaren oinarri teknikoak bereganatzen ditu, ondoren 10 urte iraungo zuen (1955-65) “abstinentzia artistikoko” garai bat ezagutzeko.

Geroztik, Apezetxeak aire librean margotzen du, hertsadura orotatik askatuta: paisaiak, mendiak, zuhaitzak... bere bihotz eta arrazoimenari aske ibiltzen uzten. Denboraren poderioz lortutako eta erabat menperatutako teknika batek antolaturiko intuizioa. Ondorioz, Jose Mari Apezetxeari buruz honako iritzi hau daukatenekin bat egin dezakegu, alegia, Apezetxea “euskal margolarien margolaria dela, batez ere Igurikeako margolariena”, bera kide zen taldearena.

Baztango, Elizondoko udalerrietako edota Arizkungo paisaiak biribiltasun eta irmotasunez margotzen dituen margolaritza da: Hemen baratzeak maiatzean prestatzen diren era berean hurbiltzen zaio Jose Mari bere margora, presarik gabe, baina, gelditu gabe ere, hazten. Abentura emankor eta amaiezina.

Abentura emankorra bere artera bihotz zabalik hurbiltzen garen guztiok inspiratzen gaituelako, eta ferietako zaldien aurrean dauden umeak bagina bezala astintzen gaituelako. Baita abentura amaiezina ere, behin bere koadroetan sartuz gero, ezin baituzu beraietatik irten...



Patxi ARANOA

1960an Buenos Airesen (Argentina) jaioa. Bere aitona, Juan de Aranoa margolariak (Bilbo) eta bere aita, Juan Jose Aranoa margolari eta arkitektoak irakatsi zizkieten margolaritzaren hastapenak. 1978an, Nafarroako Iruñean ezartzen da bere familiarekin, eta Isabel Baquedano, Juan Jose Aquerreta eta Salvador Beunza irakasleen margolaritza ikastaroak jarraitzen ditu. Patxi Aranoa bera da gaur egun margolaritza irakaslea Iruñeko alde zaharreko Aranoa Tailerrean.

Bere buruari eta bere lanari buruz dio “besteak” direla bera artista bihurtzen dutenak, eta estetika hutsak azaldu ezin dezakeen beharrezko harreman horretatik datozkiola inspirazio eta indarra...

Batez ere bere margoetako lehen planoek arduratzen dutenez, argiak berak gorputzari eta irudiei eragiten dizkien muga sotilak lantzen ditu. Gehienetan argiluna aukeratzen du, bere sentiberatasunerako kolore biziak argiari kalte egiten diotelako...

Bizitza sorra, aldi berean isila eta sentsualki hautemangarria isurtzen da giza irudi anonimo hauetatik, beren intimitatean araztuak, erromantze poetikoak bezala...



Roger BRAVARD

Roger Bravard Malentraten (63) jaio zen 1923ko martxoaren 20an. Artista margolaria, ilustratzailea, Aragoi eta Euskal Herriko paisaien maitalea, bertan ezartzen da betiko 1988ko urtean. Ezpeleteko “Bordaxaharia” bizilekuan ezarri eta bertan bere tailerra jarri zuenetik, Roger Braverdek Euskal Herriko argi eta koloreak margotzen ditu beti, bera inspiratzen dutenak, hain zuzen ere.

Hasieran, “modeloaren espiritua aztertzen du beti, sublimatu baino lehen”. Horrela, krokis ugari egingo ditu, zirriborroak, akuarelak, sorketa “heldu” bat erdietsi arte... Bere ikuspegiaren eta ikuspegi horren forma plastikoaren heltze prozesua dena.

Lyongo Arte Ederretan jaso zuen prestakuntza klasikoaz gain, Roger Bravardek abstrakzioaz baliatzen da, baina bere burua mundu eta errealtetatik bereizi gabe bere margolaritzan. Horrela, zenbait katedralen aurrealdeak (Burgos, Baiona...) ezagutuko ditugu bere mihiseetan, edota euskal kostaldeko bistetan inspiraturiko marinak ere. Formatu txikiak ere badaude, koloreztaturiko trazuak, toki publiko desberdinetatik irteten ari diren talde edo jendetzek inspiratuak.

Roger Braverdek asko bidaiatu du, eta bere inpresio piktorikoak ekarri ditu Espainia, Italia, Ingalaterra, Grezian eta abar. Europan, baina, era berean, baita Ipar Afrika, India eta Nepaletik ere. Benetako margolari “europarra”, bere kideek ezagutu eta balioetsia, Roger Bravardek egitura eta estilo oso berezkoetan margotzen du, inoiz ez erabat abstraktuak.



Gonzalo ETXEBARRIA

1954an Bilbon jaioa, Gonzalo Etxebarria artista bizkaitarretatik zuberotarrena da!

Bere ibilbidea Madrilgo Arkitektura Eskolan hasten da harrigarriro, Debako arte eskolatik igarotzen da, Oteizaren babespean, Menditteko Uztaro taldearen sorketara heldu arte. Erraz ulertuko dugu artistaren aukeraketa, oso goiz sentitzen baitu aske izateko hegoaldeko hiri giroa utzi behar duela eta Zuberoako lurrian sustraiak bota, jendetzatik, "zaratatik" eta negozioen girotik urruti.

Bizitza artistikoaren bere sustatzaile eginkizunari lehentasuna ematen dio zenbait elkarteren bidez; irakatsi, margotu eta erakusketak egiten ditu presarik gabe (Paue, Paris, Baiona...), baina beti arrakasta garbiarekin, bereziki Ostabateko Zentro Kultureko edota Getariako Museoko aurkezpen oso arrakastatsuetan.

Bere lanak izen handiko bilduma pribatuetan egoteak Etxebarria gaur egungo euskal margolaritzaren eragile ezinbestekoa dela egiaztatzen du.

Sormenean aske, indarra bere askatasun eta irudimenetik ateraz, Gonzalo Etxebarriak bere mihiseetan bere barne ibilbidea islatzen du: zenbaitetan iluna, argitsua ere bai, bizia beti!



Christine ETCHEVERS

1953an Baionan jaioa, Christine Etcheversek aitortzen du betitik margolaria izan nahi zuela.

Umetan Kanbon bizi izan zen; Pablo Tillac behatzen du, eta honek eragiten dion jakin-minaren ondorioz, margolaritzaren grinak harrapatuko du: margolaria izango da... nahitaez! Parisko Arte Ederretan eta, ondoren, Bordeleko Arte Ederretan (Charazac irakaslearen klasean) jasoko duen prestakuntza akademikoa lagun izango du, baina bere indarra beste nonbait dago eta abstrakzioari heltzera bultzatzen du, bat-bateko arrakastarekin (Margolaritza Frantses Gaztearen 1. Saria, Arteetako Akademia Europarraren Saria).

Christine Etcheversek kemen handia du eta, ondorioz, bere lanak gailentzen zaizkigu, sinbolismoak eta zeinuen irudimenak bortizki kutsatutako hizkuntza abstraktua atzemanetz gero; ez al du berak aitortzen hieroglifikoek liluratzen dutela? Bere lanak barne-barnekoak dira, eta koloreen leherketa, eraketa perfektua eta zorion komunikatiboa elkartzen ditu, baita bizitzaren lekukotasun zoragarri batek eraginiko aldakortasun sortzailea ere. Bere gainezkako irudimenezko ibilbideak garai batean euskal estelaren inguruan lan egitera darama, eta horren aldaerak koadro eta eskulturetan egiten ditu Baionako Euskal Museoko erakusketa oso nabari batean.

Christine Etcheversek orain heldutasun osoan jarraitzen du bere lana, margolaritza abstraktu baina narratibo batekin, distiratsu eta lirikoa, bere garaian erabat inplikaturik, eta euskal izaeran indartsuki errotua.



Irkus ROBLES ARANGIZ

1937an Begoñan (Bilbo) jaioa, Irkus Robles 11 anai-arrebako euskal familia handi baten 8. semea da. Hilabetea besterik ez zuenean, bere gurasoak Beskoitzen ezartzen dira, eta Irkusek bertan igaroko du bere haurtzaro osoa, 1952an Bilbora itzuliko den arte, Iparraldean bizitakoak aberastuta, eta horretaz eta baita bere sustrai bizkaitarrez kontziente izanik.

Orduan, atseginagatik, Irkusek marrazketa ikasten du, baina baita antzerkia, dantza eta kantua ere, familiaren barnean horretan jarduten duelarik. 1970tik aurrera era beteagoan arituko da margolaritzan, 1973an Bilbon egingo duen lehen erakusketarekin: serie oso luze baten aurrena (Iruñea, Donostia, Gasteiz, Caracas, Mexiko, Baiona, Madril...), ezin ukatuzko arrakasta izan zutenak.

Irkus Robles margolari euskalduna da, balioetsia, jator eta konbentzitua, Montes Iturrioz, Cabanas, Oteiza edo Ignace F. Bibalen oinorde zilegia, eta Euskal Herriko gizakien, bizimoduaren, tradizioen eta lurraren lekuko oso baliotsua. Bere mihiseetako bakoitzak balio paregabea hartzen du bere bildumagile oso ugarien begietan: benetakoarena!



Carmelo ORTIZ DE ELGEA

1944eko abenduaren 20an Gasteiz-en sortua.

Marrazketa ikasia Gasteizeko Arte eta Ofizioko ikastetxean bai eta Madrileko Arte Ederrak inguruan.

Hastapen figuratibo baten ondotik, substantzia pinturaren alde saihestuko da gero (1965-1972); pop-art delakoari esker bultzatua izanen da, formarik gabeko substantziatik eta abstrakzio imintzioaren bidez joanez (1970-1980) Kubako denborarat nun elkartuko dituen abstrakzioa eta figurazioa.

1960-eko inguruan, Euskal Eskola mugimenduan onartua da, Orain taldeko sortzaile gisa beste kide batzuekin. Garai hortan, koloreak gai garantzitsua badu bere obretan.

1968-an, Gasteizeko Kultur aretoan, atzera begirako erakusketa baten «lehenagoko pintura (1965-1966)» aurkeztuko du.

1984-an, Bilboko Arte Ederren museoan bere obrak argitan edukiko ditu.

1985-tik goiti, figuratibo paisaiaren bidea hartzen du organiko mailazko geometriko moldez erdi gordea.

Ortiz de Elgeak bere lehengo estiloaz urruntzen da, 90 hamarkadan. Sortzen ditu arkitekturaren inguruko obrak, ohol gaineko olio baliatuz (hau zen 60 hamarkadako teknika), pintzelkada libre eta arinarekin.

Gaur egun, bere obrak Arabako Arte Ederren, Bilboko Arte Ederren eta San Telmo museoetan bai eta erakunde publiko eta pribatu anitzetan erakutsiak dira. Sari asko eskuratu ditu:

Arabako Arte Lehiaketaren lehen saria 1959, 1960 eta 1963an. 1964an, bigarren saria

Euskal Pintura Nagusiaren bigarren saria, 1966an.

Euskal Pintura Nagusiaren hirugarren saria, 1967an.

Euskal Pintura Nagusiaren lehen saria, 1968an.

« Fondation Vidal y Fernando de América » bekaren jabe (1963an).

« Fondation Faustino Orbegozo Eizaguirre » bekaren jabe (1977an).



Aitor MENDIZABAL

1949an Caracasen jaioa, Aitor Mendizabalek 9 urterekin bere sustraietako Gipuzkoa berraurkitzen du. Bere barne-barnean, oso gaztetatik arteekiko erakargarritasun handia sentitzen du, baina 1976 arte, ikasketa klasikoak egin ondoren, ez da eskultore bihurtuko.

Donostiako Eskultore Gazteen Lehiaketan lortu zuen 1. saria ospe erosoan izan zitekeen bere 30 urterekin: baina berarentzat abiatze puntua baino ez da, garatzeko behar baten eta bere burua errukirik gabe zalantzan jartzeko gogo baten hasiarazlea besterik ez.

Ikasketa gogor eta zorrotz bat hasteak zerotik hastea esan nahi du, Erromako eta Carrarako Arte Ederretako Akademian, bertan 10 urtez grinaz ikasiz; berehala eskultura figuratibotik eskultura abstraktura (edo ia), liriko eta organikora, naturak inspiratura lasai "oinez joateko".



Orduan, errekonozimenduak ibilbide ausart hori saritzen du erakusketa ospetsuekin (Erroma, Florentzia, Milan, Brusela, Biarritz...) eta zenbait enkargu publikorekin, terrorismoaren biktimen omenezko oroigarria bezala, duela gutxi Donostiako udaletxeko aurrean ezarria.

Ibilbide indartsu horrekin batera, Mendizabalek margolari eta marrazkilaria izan nahi du ere bai: inola ere bateraezina ez den sentiberatasuna: aitzindariak ugariak baitira garai eta toki guztietan: Migel Angel, Rodin, Txillida...

Bere marrazkiak, tinta lanak eta mihiseak eskultore lanerako prestaketa lanak baino askoz gehiago dira, zalantzarik gabe; berezko originaltasun eta indarra dituzte: autonomoak, delikatuak eta, batzuetan, misterioitsuak. Artearen maitalea interpelatzen dute, eskultore handiaren atzean dagoen margolaria aurkitzen duenean.

Nahitaez eta berez euskalduna, Aitor Mendizabal Venezuelen jaio zen, Suitzan bizi izan da, kultura italiarrean murgildu da, Espainia maite du eta gaur egun Frantzia bizi da: munduko bidegurutzetan dagoen euskal artista bat!



PIER

1950ean jaioa, 1969tik aurrera Pierrek “apalki” bere debut artistikoak egingo ditu, Bordeleko Arte Grafikoen Eskolan ikasi ondoren.

Bere aurreneko lanak inpresionismoaren menpe baldin badaude ere, laster aldenduko da bere kideengandik, bere konposaketan lerro distiratsu eta antolatuekin. Argitan murgilduriko lerroak, bere sorterri Euskal Herriko paisaiak eta pertsonaiak gogora ekartzen dituztenak.

Ondorioz, Pierrek badaki bere margolaritzari neurritasun eta gozotasuna ematen, argi eta berotasuna. Pier, bere margolaritzaren bidez, tokiko tradizioaren esparru osoetan sartzen da, eta, agian konturatu ere egin gabe, bere historiaz harro dagoen herri bati omenaldia egiten dio.

Geroztik, Pier bera sartu da gaur egungo euskal margolari handien historian. Horregatik, seguru asko eta denbora luzerako, bere izena gogoetan grabatua geldituko da.

.



José Luís ZUMETA

1939an jaioa, Usurbilgoa (bestalde, 1974an bertako plazan 145 m². koadroko zeramikazko freskoa sortu zuen), Euskal Herriko hegoaldean, Jose Luis Zumeta, seguru asko, gaur egungo euskal margolaritzaren “handietako” bat da, argiak beteriko bere mihiseekin, huts gabeko inspirazio bat daramatenak.

1960ko hamarkadatik irauten duen inspirazioa (1967an Zumeta oso gazte bat abiatzen da “Euskal Margolaritzaren Sari Handia” lortuz), denboran zehar gero eta askatasun gehiago lortu duen margolaritza batean. Hain zuzen ere, Jose Luis Zumetak dio: “Nire margotzeko erak, benetan aldatu ez bada ere, garbitasuna irabazi du. Baina muinean, 1970ko hamarkadatik gaur egun arte, ez dut uste benetan aldatu denik. Agian lehenago organikoagoa zen, begetalagoa, naturarekiko harreman batean oinarrituagoa; orain, ordea, alde organikoaren eta geometrikoagoaren arteko oreka bat dago, hau da, formarik gabeko zerbait alde batetik, eta nire margolaritza konkretuagoa eta, ondorioz, kristalinoagoa bihurtzen duen zerbait bestetik. Bi joera horien arteko oreka bat lortzea da helburua” (cf. Informazio osagarriak “Zumeta” arte liburuan/ Atlantica argitaletxea/ Elkar liburudenda, Baiona).

Oreka lortua, Urdazubiko klaustroan erakusten diren artistaren lanak ikusten baldin baditugu. Teknika, adierazpena, oreka eta bizkortasuna... kalifikatzaileak falta dira Zumeta “handiaren” talentua era adierazgarrian deskribatu ahal izateko!



François MARTY

François Marty hasieran... sendagilea zen.

75 urterekin, eta medikuntzari 40 urte eman ondoren, eskulturan jarduten du, ondo ezagutzen dituen gorputz eta anatomien adierazpenak finkatuz: gizakienak eta bere inguruko animalienak...

Frantziako hiri desberdinetan egin ditu erakusketak, brontzezko 20 eskultura eginik. Mehatxu egiten duen “zezenetik” “jatorrizko bekatuaren” sinbologiaraino, pausu bat Martyrentzat. 2007an Cannes Hiriko 1. Eskultura Saria jaso zuen.



Thomas FISCHER

Tomas Fischer 1941ean Zurichen jaio zen.

1966tik aurrera Espainian bizi da (urteko zati bat Nafarroan) eta hor jardungo du enpresari gisa; baina 1996tik aurrera bakarrik eskulturan jardungo du autodidakta bezala.

Ondoren, bere bizitza artistikoa erakusketa anitzen bidez gauzatuko da, berak 1997tik aurrera etengabe lotuko dituenak: banakakoak, baina baita ere taldekoak (Gruma-x taldearekin Malagan; Marbellako El Catalejo galerian, edota Antares taldearen barruan Sevillan)... Tomas Fischerrek “Margolari eta eskultoreen elkarte espainiarrarekin” erakusketak egin ohi ditu eta bere lanak bilduma pribatu anitzetan daude Espainian, Suitzan edo, baita ere, Alemanian eta Estatu Batuetan.

Fischerren eskulturek gaur egungo munduari buruzko hausnarketa etengabea adierazten dute, baita gizakiari buruz eta gizartearekiko eta naturarekiko bere harreman konplexuei buruz.

Animalien mundua bere gai errepikarietako bat da. Bere lan “handienen” artean aurkituko ditugu: “La Agonía del Guerrero” (gerlariaren agonia), “El Gallo” (oilarra), “El Ángel de la Guarda” (aingeru guardakoa) edota Ikaro figuratibo bat “Ícaro figurativo”...



Iñaki RUIZ DE EGUINO

1953an Donostian sortua. Eskultorea, margolaria, grabatzailea, idazlea, hizlaria, arte-kritikaria eta erakusketen komisarioa

Zaragozako Arte Eskolan ikasi zuen. 1974. urtean jarri zituen ikusgai lehen aldiz bere lanak. Handik aurrera izan duen jarduera profesionala Espainiako azken urteetako ibilbide plastiko erakargarrienetakoa da. Erakusketa asko egin ditu, eta publikoak eta kritikak oso ondo hartu dituzte; gainera, sari eta onarpen ugari jaso ditu.

Egile honen artelanak koherenteak eta indartsuak dira, intuiziozko errebelazio estetikoan, bizitzeko grinan eta diziiplina formalean oinarrituta.

1972tik 1977ra bitartean, espresionismo abstraktua landu zuen margolanetan. Ondoren, espazio plastikoaren kontzeptuari buruzko ikerketa pertsonala garatu zuen serie hauetan: *Errealismo Cosmogónico Mágico* (1977-1980); *Pintura tetradimensional* (1980-1985); eta eskulturan: *Identidad de Espazio y Materia estética*.

1980-1990 hamarkadan, hizkuntza geometrikoa erabili zuen (eskultura eta pintura) honako serie hauetan: *“Elementuz de utillaje tradicionales”*, *“Arquitectura rural”*, *“Papel y cuerdas”* eta *“Flotaciones-Gravitaciones”*.

1990etik aurrera, laborategi plastikoaren oinarri teoriko-praktikoak zabaldu ditu eskulturan, grabitazioetan, erliebeetan, pinturan, lan grafikoan eta beste euskarri batzuetan.

Ruiz de Eginoren lanak nazioarteko foro askotan, Europako 30 museotan, erakundeetan eta espazio publikoetan erakutsi dira. Gaur egun, nazioarteko artista geometriko entzutetsuenetakoa da.

Arteari buruzko egile espezialista gisa, 40 lan baino gehiago argitaratu ditu.



Ramon RUIZ CABESTANY

Euskal eskulturaren tradiziozko orokortasunak jarraitzen, espazioa, bizia, ohitura... Ramón Ruiz Cabestanyk ironia eta naturaren suntsipena edo eta moldaketak, gure soziedadea eragina, gehitzen du.

Bere arte lanetan pertsonai nagusiak, gizakia, espazioarekin eta naturarekin oztopatzen da, modu ironiko batean, eta errealitatearen egiak eta tristurak agertzen digu modu irrigarri eta baita erreflexibo batean.



Juan GORRITI

Zalantzarik gabe Juan Gorriti, nafar artista bikainaren lantegi eroan, bere aintzineko Eduardo Chillida eta Jorge Oteiza haundien itzal ikaragarria sumatu daiteke.

Ongi ulertzeko lehenik jakin behar da eskultura bera, euskal oinarrietan aspaldidanik erroturik dagoela : benetako eskultura modernoa eta hala ere aintzinatekoa, euskal herriaren izate eta nortasun herrikoian xertatua.

Goriti gizon sentikorra, mendi,oihanik sakonki maite dituen, « herritik sortzen eta herrira itzultzen den artea » Fernand Leger'ek erraten zuen bezalako horretan bere unibertsoa eraikitzen duena.

Unibertso garbi eta hutsa, azkar eta sendoa, Sarako elizan sutetik gorde zituen habe eta zutabeen parekoa mendeak zituzten zurak, suaren garrek sekulako itxura emanez arima aldatu gabe utzitakoak.

Zurezko eskulturak Gorritiren eskuek moldatu eta berreginak, argiak zeharka sartuaz argiztatu eta berpiztuak.

Zurezko imajinak zorrotz eta bikainak, nun agertzen zaizkigun, unrdin kolorezko aulkitxo surrealista bakarren batzuk, eguneroko baserri bizitzako lekukoak agian...Hainbat gauza erran nahi luketenak.

TISTA



Egurrezko eskultura Irunan 1961ean sortua





Iñaki OLAZABAL

Andoain 1959

Zinka, Itxuraz, material hotz, arraro, gogor et denborak ezin higatuzkoa da ; ez dirudi, beraz, sorkuntza artistikorako aproposa.

Bada, balentria edo arintazun ametsa bete du Iñaki Olazabal zizelkariak, egun batez erabaki baitzuen bere lana zinkari lotzea eta zinkaren menpe ezartzea. ¿Noiz? Hain zuzen, Parisko zinkazko teilatu tradizionalen aitzinean zur eta lur gelditu zenean.

Geroztik, Zumaiako tailerrean, artistak zinkazko xaflak moztu, elkartu eta soldatu egiten ditu, eta, inspirazioaren arabera, *Jainkotegi*, *Maska*, *Zelatari* edo *Amaetxe* bihurtzen. Bere eskulturek forma geometriko eta soilak dituzte, *Arte Povera* eta *Espressionismo Lirikoaren* artekoak. Natura, espiritualtasuna edota gizakia ekartzen dituzte gogora, eta ikuslearen begiradaren sentimentaltasunari dei egiten diote : orain segurtasun, orain kezka, orain zorion, orain tristura.

Bestalde, beharbada, soldaduraz piztu eta azidoz leundu metal-azalaz, obra gordin minimalistek artistaren bizitzako sufrimendu-aztarnen berri ere ematen dute, oharkabea. Olazabalen obrak denboraz kanpoko monumentuak edo megalito modernoak dira ; nortasun sendoa dute, eta beren presentzia enigmatikoak emoziozko erantzuna eragiten du . Gaur taldearen oinordeko gisa, Olazabalek euskal eskultura garaikidearen dimentsio poetikoena agerian uzten du.



Edouard SOLORZANO

Donibane Lohizune 1937

“ERREALITATETIK ABIATZEN NAIZ, eta osagai batzuk baino es ditut atxikitzen”.

Edouard Solorzano gizon isil eta apala da, baina hitz gutxi batzuk aski ditu ia berrogei urtez artista bizia bideratu dioten bilaketa eta planteamendua laburbiltzeko. Lurra landuz edo marraztuz, zizelkariak emozio estetikoa bilatzen du, batez ere gizakiaren irudikapenean, hori izan baitu beti gai kutuna.

Solorzanoren eskulturek, brontze isuri, hareharri moldatu edo metal tolestuzkoek, ohiko gaiak jorratzen dituzte maiz (bikotea, amatasuna, biluztasuna...), Pierre Espilek Solorzanori buruz idatzi zuenez, bere lanek “Maillolen gozotasun harmoniatsua” ekartzen dute gogora, “abstraktutik hurbil”. Klasizismotik aldentzeko, Solorzanok eskultura arkaiko eta primitibora jotzen du, denboraz kanpoko forma soilen bila; nahasketa horrek nortasun eta bizitasun handia ematen die obrei, bolumenen orekari eta harmoniari esker. Erlikeekin, betearekin eta hutsarekin jolasean, zizelkariak figurazioa bere egiten ditu, aurretik Henry Moore edo Alexander Archipenkok egin zuten bezalaxe.

Sorkuntza bakoitzean, formak eta edukiak koherentzia osoa dute; ikuspuntu askotatik begiratzekoak dira, eta barnea eta kanpoa ezin hobe adierazten dute. Artista kezkati eta arduratsuak adierazkortasun handiko figurazio findua agertzen du eta, Solorzanoren beraren hitzetan, “errealitatea bihurtzen du, visita azaleratzeko”.



Koldobika JAUREGI

Alkiza 1959

“ARTEAK EZ DU EZERTARAKO BALIO; HORREK EGITEN DU BALIOZKO”, Koldobika Jauregiren esaldi kutunetako bat da. Dirudienez, beraz, eskultura hausnartu eta gogoetatu egiten du. Baina gizona hobeto ezagutzeko, tailerrean ikusi behar da: tailer landatarra eta bukolikoa du, hiritik eta bere morrontzetatik kanpo. Ur Mara leku magikoa da, haritzez eta iratzez inguratua; entzuten den hots bakarra Arraiaga errearen xuxurla da.

Dударик gabe, zizelkari autodidaktaren inspirazioa hortik dator, natura horretatik, lur horretatik, baita gauetik ere. Izan ere, gauaz esna egoten da, urduri, bazterrak ezkutatzen dituen eta pertzepzioa aldatzen duen ilunpe sakonari begira; iluntasunak eta gauak lasaitzen baitute, eta isiltasunera deitzen. Honela laburbil daiteke, hain zuzen, Jauregiren obra: iluntasuna, isiltasuna eta meditazioa. Zenbait urtez figurazio espresiboan jardun ondoren eta ezagupena azkar lortu arren, Jauregik lengoaia aldatu zuen, abstrakziorantz, soiltasunerantz; egungo hizkera zeinuz eta sinboloz eginga du; harrian, zurean edo altzairuan markatzen ditu, sentimenduak eta zalantzak ahalik eta zehatzen adierazteko. Hizkera horrek marrazkian ere badu sorbururik; izan ere, marrazkia funtsezkoa du, inspirazioak zuzenean gauzatzen baititu, obra zizelkatuari aurea hartzen diola.

Bere esanen kontra, beraz, Koldobika Jauregiren Arteak zerbaitetarako balio du, dударик gabe: lasaitasunera, espiritualtasunera eramaten gaitu. Marmol zizelkatu eta grabatuetan edo zehatz-mehatz ebaki eta kaligrafiatutako altzairu-xafletan, mezuaren zentzua argi agertzen da. Jauregik euskal eskulturan duen garrantzia bezain argi.



Joseba ESTARTA

Bilbo, 1933.

Ingeniaritza ikasketak bukatu ondoren, urte batzuz, industrian lan egin zuen.

70 hamarkadan Ingalaterran, Show anaiek garatutako Shell Moldea-ren teknika ezagutzen du eta gure eskualdera ekarri; teknika honen bidez, bukatutako lanen kalitate eta aberastasun testurala askoz ohea lortzen da.

80 hamarkadaren hasieran, Araba-ko zonalde industrial batean bere tailera ezartzen du. Bertan zenbait euskal artisten arte-lanak urtzen ditu: Néstor Basterretxea, Jorge Oteiza, Andrés Nagel, Vicente Larrea, Remigio Mendiburu... Epe labur honen ondoren, eta artista hauek animaturik, bere eskultura lanak egiten hasten da.

Egile honen eskultura-ekoizpen garrantzitsuena, baina ez bakarra, emakumea irudikatzen du, emakumearen haurdunaldia. Gero, ardatz hau serie berri batzurekin zabaldu eta aberasten da: "Familias". Baita, gizon-emakume dantzarien beso eta zango luzatuen bitartez, gorputzak sortarazten dion mina adierazteko gai da.

"Nire arte praktika denborarekin garatuz joan da, nere gain hartutako erantzunkizun garbi batekin. Azalduko naiz: nere ustez lan koherente bat egiten dut, ez dago modaren menpe, nire eboluzio pertsonalari loturik baizik. Noski, nire estiloa haurrera eramateko beste artisten esperientziak baliabide izan ditut. Ez dut ezta originaltasun ezta eboluzioan sinesten. Irakasle haundiek eta historiak uzten gaituzten lekzio eta irakaspenetatik asko ikasten da."

Brontzeaz aparte, egurra, harria, marmola eta burnia lantzen ditu.